

UROLA KOSTAKO HITZA (2006-02-15)

15.000 erabiltzaile liburutegian

Liburutegiko zerbitzuak erabiltzen dituztenen %62 emakumezkoak dira

IRENE ELORZA

Aizkibel Liburutegiaren 2005 urteko datuen arabera, jaitsi egin da liburutegira joaten den erabiltzaileen kopurua. Gestioak eta kontsultak Internet bidez Absynet eta www.azkoitia.net egin ahal izatea izan daiteke horren arrazoa. Datuen arabera, liburutegia ikasteko tokia izatetik dokumentazio lanetarako lekua izatera igaro da. Gainera, egutegia eta ordutegia handitzeak erabiltzaile gehiago erakarri ditu Udal liburutegira.

Dan Brown-en, Toti Martinez de Lezearen eta Lucia Etxeberriaren eleberriak izan dira azkoitiarrek maileguan gehien hartu dituzten liburuak.